

Sagararak badu historia

◀ XVII. mendearen hasieran euskaldun anitz hil ziren Bordeleatik etorritako Pierre de Lancre inkisitzallearen sugarretan. Haien bekatu bakarra Adanek jandako fruitu 'madarikatuarekin' egindako edaria edatea nonbait. Denboran haratago joanez, milurtearen hasieran, 1014. urteko apirilaren 17an hain zuzen ere, Santxo Handia Nafarroako erregeak Leireko monasterioari diploma bat luzatu zion, idazkian bertako sagarrondoei erreferentzia eginez. 1189. urtean, garai batean Ingalaterrako errege izandako Rikardo Lehoi Bihotzek

Lapurdin sagarrondoak babes-tuko zituen lehen legea plazaratu zuen. Sagastietan kalteak sortzen zituen edozein animaliren jabeak eta pertsonak zigorrak izango zituzten. 1457. urteko Hernaniko lege batean, sakratuak kontsideratuak ziren bost sagarrondo moztuz gero, heriotz zigorra ezartzen zen. Eta Bizkaian gauza bera. Foru zaharretako dokumentuek erakusten digute, sagarrondoei, sagarrak eta sagardoak babes berezia izan dutela legedi eta gizarte mailan, herriari estuki atxikirik izan diren produktuen seinale.



SARDINAK ere jaten ziren sagardotegietan. IMANOL OTEGI